


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,3 igo dira 2007ko otsailean

Azken hamabi hilabeteetan (2006ko otsailetik 2007ko otsailera) eraikuntzaren kostuak %5,5 igo dira.

EAEko eraikuntzako kostuen indizeak %0,3ko igoera izan du 2007ko otsailean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %5,5eraino igo da, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera otsailako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2007ko otsailean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,4ko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute; bai eraikuntzak bai obra zibileraiko lehengaien kostuek %0,4ko gehikuntza izan dute aurreko hilabetearen aldean. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, argi ikusten da antzeko ibilbideak izan dituztela baina ezberdintasun batzuekin: eraikuntzako lehengaien kostuak %6,8 gehitu dira, eta obra zibilekoak %5,1.

Otsailean, prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, petrolioaren eratorrietan (%4,1), harri landuan (%4,1), asfaltozko produktuetan (%3,5), beiran (%2,9) eta karea, igeltsua eta eskaiolan (%2,2) kontsumitutako lehengaietan eman dira. Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: erabilitako makinaren osagarriak (%-2,4), lehergailuak eta gasak (%-1,6), metalezko tutueria (%-0,8) eta gailuak eta material elektrikoa (%-0,2).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: burdina eta altzairua (%23,4), energia elektrikoa (%18,4), beira (%18,1) eta metalezko tutueria (%17,4). Bestalde, urte batetik bestera (2006ko otsailetik 2007ko otsailera) honako hauen lehengaien prezioak murritzuta egin dira: petrolioaren eratorriak (%-8,2), asfaltozko produktuak (%-7,0) eta garbitzeko materiala (%-0,1).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko otsaila.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	129,8	0,3	5,5	2,4
ERAIKINAK	130,0	0,3	5,8	2,5
OBRA ZIBILA	129,0	0,2	4,5	2,2
LEHENGAIEN KOSTUA	126,4	0,4	6,5	1,9
ERAIKINAK	126,9	0,4	6,8	2,1
OBRA ZIBILA	124,3	0,4	5,1	1,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp